

Paula Kasares

IRAKASLEA

Marrazki bizidunik gabeko haurrak

Telebista gosaltzeko, telebista bazkaltzeko, askaria hartzeko eta, batzuetan, afaltzeko ere, telebista pixka bat. Horixe izaten da oraingo haur anitzen eguneroko astimenua. Baina ez natzaizue horretaz ariko, ez eta haurrek ikusten dituzten telebista edukien egokitasunaz ere, anitz aldiz zalantzan jartzeko modukoak izaki ere.

Telebista erreferente eta eredu iturri eraginkorra da txikiendako. Haurrek pantailako pertsonaiak gogoko izaten dituzte, haien abenturaxoen zale amorratuak izaten dira eta, sarritan, horien gainean aritzen dira solas-jolasean. *Yogi Hartza*, *Popeye Marinela*, *Dinosauroak*... Zein haurrek ez ditu ezagutzen?

Ezagutu bai, haur guztiek, segur aski, baina batzuetako marrazki bizidun horiek euskaraz egiten dute arrunki, eta bertze batzuetako aldiz, erdal-dun hutsak dira. Horrela gertatuko zaie egungo haur nafarrei, joan den irailetik ez baitute marrazki bizidunak euskaraz ikusteko aukerarik. Eta hori, nolatan?

ETB1ean ematen zuten haur programazioa ETB3ra aldatu zutenetik haur nafarrek ezin baitituzte EAEko haurrek egunero ikusten dituzten euskarazko telebista ikusi. Nafarroan ETBko kateak ez dugu Lurreko Telebista Digitalaren bidez hartzerik eta lehena-



JOSU SANTESTEBAN

goko molde analogikoan segitzen dugu –noiz artio ez dakigula– ETB1 eta ETB2 jasotzen. Gainera, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak 2009an sinatutako hitzarmenak Foru Komunitatean ETBren lehen bi kateak jaso ahal izatea aurreikusten du baina ETB3 aipatu ere ez du egiten.

Hitzarmena egon badago, halere, hura betetzeko borondate falta nabarmena da.

Ez sinatzaile batek ez bertzeak ez du Nafarroan ETB hartzeak leharkeen gastua bere gain hartu nahi. Sanzek “nafarrei onurarik ez dakarkien kontua” dela dioten bitartean, milioi bana euro oparitzen die urtero Canal 4, Canal 6 eta Popular TV telebistei, eman beharreko euskarazko emanaldi kuota betetzen ez badute ere.

Gauzak horrela, nafar euskaldunok zenbait gauzetan makurrago gaude orain duela hogeit hamar urte baino. Hogeit hamar urteotako haurrentako telebista (Clan, Canal Disney, ETB3...) berretu diren bitartean, Nafarroan aldiz, genuen aukera bakarra galdu dugu. Honezkerok hasi zaigu –beren gurasoek ez bezala– marrazki bizidunak (*Bob Esponja*, *Iggle Piggle*, *Patito Feo* eta halako anitzek) euskaraz egiten ez dutela uste izaneko duen lehen belaunaldia. Batzuek interes larria dukete haur nafarrak euskarazko tele-erreferenterik gabe haz daitezela. ■

«
 Nafar euskaldunok zenbait gauzetan makurrago gaude orain duela hogeit hamar urte baino. Hogeit hamar urteotako haurrentako telebista berretu diren bitartean, Nafarroan aldiz, genuen aukera bakarra galdu dugu
 »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Txiki, Benegas alegia. Hondar urteetan usu, aspaldi ikusi gabeko adin-kideak ezagutzen lanak izaten ditut. Haiei ere nirekin gertatuko zaiena dela argi dut, ez ezagutzearen plantak egiten ditugunekoak albo batera utzita. Xabier Amurizari irratiz entzun nion, gurean denbora pasatu baino joan egiten dela. Polita. Joan ala pasa, bere arrastoa utzita. Eta urte andana ikusi gabeko *Txiki* Benegasek lehen kolpean garai bateko Inigo Cavero ekarri dit gogora. Hartu duen bueloa, krabata okotzaren segidan apezpiku lepoan kokatu ezinik eta *michelin* bisaia UCDko harenak ziruditen, gure gazte

Erraldoitu...

denborako kirolari bikainarenak desgerraraziz. Adituek esana da, telebista-kamerak puztu egiten duela jendea. Benegasen kasua izan liteke, lau hamarkada bada, gutxienez, parean ikusi nuenetik. Eta dozena kameratik goiti parean zituenez, baliteke denen artean holako piuran agertu izana. Gure haur denborako kanonigoa. Ezker abertzalearen makila izateko gantzatuegia dirudi, odol zirkulazio motelegikoa. Gazteagoei beharko lieke lekua utzi, abiadura azkarregiko fundamentuzko zerbaitegin nahi izango balu. Bera bezalako jokalariz osatu taldeak maila galtzeko arriskua du, nahiz eta arbitro guztiek bere alde egingo dutenaren bermea izan. ■